



**FLOREAGA**  
SALESTAR IKASTETXEA

Izarraitz z/g \* 20720 - AZKOITIA (Gipuzkoa)  
Tfnoa. 943 853 043 / Faxe 943 857 021  
E-mail <floreaga@floreaga.com>

ERLIJIOA. DBH 3


**ZIENTZIA ETA FEDEA  
EZTABAIDAN:**

**MUNDUAREN HASIERA  
EDO SORRERA**

Noiz, nola eta zergatik sortu zen mundua? Galdera hau beti egin izan du gizakiak... Gizakiak gauza guztiak eta euren zergatiak ezagutu nahiko lituzke eta beti jakin nahi izan du nola sortu zen mundu hau...

Galdera honi erlijio guztiek eman diote beren erantzuna. Kristauok honako hau sinesten dugu: Mundua Jaungoikoak sortu zuela, berak nahi izan zuelako, libertate osoz eta maitasunaren poderioz... "Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun zeru lurren egilea"... Bibliako lehen liburuan (Genesis edo Hasieran) horixe adierazten da eta gainera, judutarren kontatzeko estiloa erabiliz... Zazpi eguneko lanean Jaungoikoak izaki guztiak sortu zituen: mundua, landare eta animaliak eta azkenik gizakiak, Adan eta Eva hain zuzen.

Zientziak lan asko egin du galdera hauei erantzuna emateko asmoan. Gaur egun, zientzilariek diotenez, mundua "Leherketa Handi" (Big Bang) baten bitartez sortu zen. Hau da, oraindik zehaztu ezin daitekeen urte kopuru bat (15 mila miloi urte?) igaro dira "Leherketa handia" gertatu zenez geroztik. Hasiera hartan, munduko materia guztia dena batera



zegoen. Gero, eta denbora laburrean, elementu kimikoak osatu ziren... Gero konstelazioak, planetak eta abar finkatu ziren...

"Lurra" deritzan planeta txiki batean "bizia" sortu zen (horretarako baldintza asko batera eman zirelako). Gero "bizitza" horrek forma desberdinak izan ditu; eta horien artean, animalien espezieen eboluzioa dela eta, azkenean gizakia ere sortu zen (tximino familia batzuegandik). Big Bang edo "Leherketa Handia" ez da edozein teoriaren mailako imajinario bat. Leherketa hark utzi zuen erradiazioa jasotzea lortu du Hubble espazioko ontziak... Beraz, egiazat hartu beharko genukeela dirudi.

Alde batetik Bibliak esaten duena ikusiz, eta bestetik zientziak aurkitu

duena jakinez, zenbait pertsonen iritziz, erlijioak esaten duena “gezurra” da, eta ez du merezi honelako “istorioetan” sinesterik.

Eta gaur, urte eta mende askotako eztabaidak igaro eta gero, zientziak esaten diguna onartuz gero, izan al gaitzke sinestedunak? Arrazoa ongi erabiltzen duen pertsona batek kristau izaten jarrai al dezake, pentsatzeari eta bere buruari uko egin gabe? Munduaren hasierari buruz, zientziak eta kristau erlijioak esaten dutena, gauza biak batera, onar al daitezke?

Oraindik zientzilari guztiek ez daude ados zehaztasun guztietan, baina badirudi zientzilari gehienek teoria berdina onartzen dutela... Baina kontuan hartu behar dugu hau ere: zientziak esplika dezake noiz edo nola gertatu zen munduaren sorrera, baina ez du esplikatzeko zergatik sortu zen mundua, edo zerk edo nork egin zuen posible... Mundua sortu baino lehenago, materiari ez ba zegoen, nondik sortu zen? Ez dagoen tokitik ezin baitaiteke ezer atera... Munduaren “zergatiak” aztertzean, zientzia isildu egiten da. Hortik aurrera filosofiaren lana hasten da, edo erlijioarena...

Eta Biblia? Nola sines daiteke mundua zazpi egun zehaztutan sortu zela, eguzkia baino lehen “argia” sortu zela...? Biblia behar den modura irakurtzen jakin behar dugu. Biblia orain urte asko idatzi zen, kultura eta hizkuntza zehatz baten, inguru sozial baten... “Adan” ez da pertsona konkretu baten izena, “Adan” hitzak “gizona, gizaki arra” esan nahi du... Eta “Eba”k, “emakumea, gizaki emea”. Mundua zazpi egunetan sortu zela idazteak arrazoi erlijiosoak zituen: astean zehar lana egiten zen eta asteko

zazpigarren eguna, larunbata, “Jaunaren eguna” bihurtu zen.

Erlijioak Biblia ongi irakurtzen irakatsi behar dugu. Biblia ezin dugu hitzez hitz irakurri. Idatzi zenean, hitz askok beste esanahia zuten. Biblian irakurtzen dugunaren esanahi sakona adierazten digu Erlijioak: Jaungoikoak mundua sortua zuela hasieran, bere borondatez, bere maitasunaren fruitu bezala. Bere hitzaren indarrez sortu zuen guztia. “Izan bedi” edo “Egin bedi” hitzaren indarrez. Inork behartu gabe... Berak nahi izan zuelako... Mundua sortu zuen eta munduari gauza berriak sortzeko ahalmena eman zion. Hortik etorri zen biziaren sorrera, landare eta animalien eboluzioa, eta une berezi baten, gizakiaren sorrera... Horiek denak Jaungoikoak emandako indarrak egin zituen posible. Munduaren historian, denboran zehar, Jaungoikoa ondoan egon da, alboan, bere indarraz munduaren eboluzioa bideratzen.

Sinesmena edukitzea edo ez edukitzea norberaren **aukera** bat da; baina zientziak ez dauka zer ikusirik fededun ala ez izateko. Zientziak ez du eragozten erlijioa, ezta derri-gorrez fededun izatera bultzatu ere. Oso ongi izan gaitzke zientzilari eta kristauak.

Zientzialari asko erlijioso edo fededunak dira, beste asko ez. Zientziak eta fedeak ez dute, berez, elkar oztopatzen. Ezagutzearen bi modu desberdin dira; bakoitzak bere alorra du.